

azken portuko tabernan • gorka erostarbe

bat-batean

- **Telebista saio bat?** Maider Eguesek aurkezten duen saioa: *Chiloe*.
- **Musikari bat?** Tracey Chapman eta Rage Against the Machine.
- **Liburu bat?** *Sofiaren mundua*.
- **Edari bat?** Ura eta Coca-Cola Licor 43rekin.
- **Janari bat?** Ogia.
- **Parrandarako leku bat?** Gustuko tabernaren bat.
- **Hiri bat?** Irun; hiri txiki bat da.
- **Ilusio bat?** Une honetan bidaia da nire ilusioa.
- **Pena bat?** Istorio honetan aitatxi eta amaxirengatik sartu nintzen, eta berriki hil zait amatxi.

Edurne Mitxeko

«Orain duguna ezagutu ez banu, 'Basetxea'-n bezala biziko nintzateke»

NORTASUN AGIRIA

Irunen jaio nintzen, martxoaren 11n, orain dela 23 urte. Txiki-txikitan Irungo El Pilarren ikasi nuen. Gero La Sallen, eta azkenik Donostiara joan nintzen, bi prestakuntza ziklo egitera: bidai agentziak bat eta turismo gida bestea. Ondoren, urtebetez Alemanian izan nintzen, haurtzaindegi batean lanean. Iaz AEBetan izan nintzen, hiru hilabetez, monitore gisa, eta Parisko Euro Disney-n ere egin dut lan. Telepizzan aritu naiz, okindegia batean... eta gaur egun tabernari gisa egiten dut lan. Diru apur bat ematen dit eta ez dut presarik, oso gustura bainago.

Ez zen hautagai nagusia, ez baitzen sartu hasiera-hasieratik *Basetxea*-n. Halere, hainbat duelu gainditu ondoren eta ikusleen babes handia jaso, irabazi du ETBko saio horretan. Bidaiatzea oso omen du gustuko eta pozik nabari zaio esku artean duen aukerarekin.

■ **18.000 euroko bidaia bat eman dizute sari-tzat irabazle izateagatik. Aukera bazenu, bidaiarekin edo diruarekin berarekin gertuko zinateke?**

Bidaia aukeratuko nuke. Dirua emanez gero, berdin-berdin joango nintza-

teke bidaiatzera. Gustatzen zaidana ego-kitu zait eta ez nuke aldatuko.

■ **Zu, gainera, ohiturik zaude bidaiatzera, ezta?**

Bai, ez dakit noiztik dudazaletasun hori. Agian, aita taxilaria denez eta asko bidaiatzen duenez, hortik etorriko zait. Jendea ezagutzea eta beste kultura eta hizkuntzak ezagutzea asko gustatzen zait.

■ **Besteak beste, bihotz ona duzulako irabazi omen duzu lehiaketa. Aukera balego, saria banatzeko adinako bihotz ona al duzu?**

Saria bi lagunentzat da, eta lehen astean behintzat saioko beste lehiakide batekin joango naiz, Anerekin. Hala esan nuen eta hala egingo dut. Eta berak aukera dezala nora, nik gero badut-eta denbora.

■ **Eta nora joatea pentsatu duzu?**

Ea zer aukera dudan, baina Indiatik hasi eta ondoren Txina, Zeelanda Berria, eta Hego Amerikako herrialderen bat ezagutuko nituzke. Bidaia Afrikako beste herrialderen batean amaituko nuke eta buelta etxera.

■ ***Basetxea*-n oherik gabe, dutxarik gabe eta ia janaririk gabe bizi izan zarete. Zein ordenatan sumatu duzu bakoitzaren falta?**

Janariaren falta sumatu dut gehien. Gorputza errekan garbitu behar izaten genuen eta, agian, duxatzeko aukera ho-

rren falta sumatu dut bigarrenik, eta azkenik, ohea. Edozein tokitan egiten dut lo, eta segituan, gainera.

■ **Horrez aparte, zer bota duzu faltan?**

Lagunena eta familiarena. Batez ere, nola zeuden jakin nahi nuen, ondo edo gaizki ote ziren.

■ **Horrela biziko al zinateke telebistako saiotik kanpo?**

Orain duguna ez banu ezagutu, biziko nintzateke horrela, eta aurrera egingo nuke dagoenarekin. Behin zer daukagun ezagututa... gaizki ohituta gaude eta oraingo gauzak nahi izaten ditugu.

■ **Baldintza horietan beste pertsonekin harremanak garatzea erraza al da?**

Kanpoan baino errazagoa dela iruditzen zait, 24 orduz baitzaude pertsona horiekin. Une horietan barruko jendea zure familia da, nolabait. Une horretan soilik pertsona horiek dituzu. Sua egiteko denok elkartu behar gara, baita janaria egiteko ere, eta bazkaltzeko...

■ **Saioan aurrera egin ahal izateko zenbait duelu irabazi behar izan dituzu eta lehiakide ona zarela frogatu. Eguneroko bizitzan ere lehiakorra al zara?**

Ez, ez, ez naiz batere lehiakorra. Duelu horiek egin behar izan nituen eta lau duelu egin eta lauak irabaztea suertatu zitzaidan. Baina ez naiz batere lehiakorra.

■ **Tabernari gisa egiten duzu lan eta Irungo alardean kantinera irten zara aurren. Etxe barruan bi funtzio horiek jokatu al dituzu, eta, kasu horretan, baliagarri izan al zaizu?**

Ez, ez, ez dut halakorik egin behar izan. Tira, tabernako zerbitzari gisa lan eginez asko ikasten duzu pertsonak ezagutzen, eta psikologo moduko norbait bihurtzen zara. Kontatzen dizkizute gauzak eta zuk entzuten dituzu, eta horrek agian balio izan dit etxe barruan. Kantinarena egun bakarrekoa izaten da, eta ez dut halako funtziorik bete.


■ **Nola igarotzen duzu Irungo alardea?**

Niretzat, oso egun berezia da txiki-txikitat. Neskentzat, kantinera izatea ametsa da. Ama ere ateraz zen bere garaian. Eta aurren zortea izan dut eta ego-kitu zait. Nire urtea dela dirudi. Loteria ere erosi dut, ea tokatzen zaidan.

■ **Zein irakaspen nagusi ateratu duzu *Basetxea* saioko egonalditik?**

Pertsonak janaririk gabe eta baldintza gogor samarretan etxe barruan egonda nola erreakzionatzen duen ikasi dut. Ikasten duzu zer gauza egiteko gai izaten garen. Ni neu ere harritu nau neure buruak. Pertsona asko aldatzen da hor barruan. Nolabait, bizirik irauten ikasten duzu.

zirika



Sustrai Colina

Gure olentzero. Aurreko egunotan eztarria urratu arte behin eta berriro kantatu dugun leloa. Baina ahotza errekupeatzeko mendazko gozokiak irentsi eta irentsi nabilen honetan, oso haserre nauka gizon bizardunak.

Izan ere, erdi lo harrapatu ninduen bere bisitak, edo, hobeto esanda, erdi esna. Tarte-txo bat utzi nion bere eginbeharrari aurre egin ziezaion, baina atea ixtera zihoala harrapatu nuen, in-fraganti. Azkar ohartu nintzen bere bekatuaz. Ezer baino lehen, ea Galiziako uretan bainu bat hartuta zetorren galdetu nion, umore beltzarekin ez jokatzeko erregutu zidan arte. Despeditzeko keinua

egin zuen, hanketara begiratu nionean. «Txorizo alena!!!» laz amak urtebetetzeetan oparitutako zapatak zeuzkan jantzita. Ez nion azalpenik galdetu, lapur handienak harriak bezain mutuak direla jakitun. Eni so geratu zen, joateko baimena eskatzera ausartu gabe. Orduan, askatasuna ez dela erosten, baina prezioa duela gogoratu nion. «Nahi duzuna», erantzun zidan otzan-otzan, umil-umil, baloiaz eskaparetea hautsi duen umeak egingo zukeen gisan. Nik, erruki izpirik gabe, gure bizilagunari zegokion tronpeta berria jarri nion bermetzat. Onartu egin zuen. Joan zen. Apal.

Horra horra...

Gustura itzuli nintzen ene ohatzera, inoiz joko ez nuen tronpeta eta guzti. Behintzat, ziur nongoen hurrengo egunetan nire bizilagunak ez zidala bere dohain katastrofikoaren erakustaldirik emango. Gaur goizean egin dugu topo elkarrekin eta bere traumen berri eman dit, nik deus galdetu gabe. «Seguru ongi portatu zarela?», bota diot nire irribarrerik ironikoenaz. Baietz erantzun dit bere oinetara seinalatuz. Zuri-zuri gelditu naiz. Bart olentzerok ebatsi zizkidan zapatak zeramatzan. Iaz amak urtebetetzeetan oparitutakoak. Onartu egin dut. Joan naiz. Apal.